

Euskara ez dakitenak nola erakarri aztertzen

Euskara zerbitzuetako teknikariak herrian bildu dira III. Udaltopen

Bi egunez, herri desberdinetako euskara teknikariek "Zer da euskara ez dakitenentzat?" galdera erantzuten saiatuko dira eta pertsona horiei euskara hurbiltzeko udalek zer egin dezaketzen eta nola aztertuko dute Manuel Lekuona kultur etxean antolatu den III. Udaltopen.

Hasiera ekitaldia

Lasarte-Oriako udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak, Eudelek eta Kutxak antolatuta, Udaletako Euskara Zerbitzuen topaguneari atzo goizean eman zitzaion hasiera ekitaldi ofizialarekin.

Honetan, Lurdes Auzmendi Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara eta Kultura diputatua, Estitxu Alkorta Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria, Jesus Maria Zaballos Lasarte-Oriako alkatea, Bittor Oroz

Eudeleko ordezkaria eta Mikel Irizar Kutxako ordezkaria egon ziren.

Hauek gaiaren garrantzia azpimarratu zuten. Euskara dakitenek hizkuntzaren erabilera gehiago sustatzearen garrantzia ere aipatu zuten. Artzeren "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakienak hitz egiten ez duelako, dakienak hitz egiten ez duelako baizik" esaldia gogora ekarriz.

Hitzaldiak eta erakusketa

Euskara teknikari eta erakundeetako ordezkariak hitzaldiak eta mahai inguruak entzuteaz gain, Katalunia eta Valentziako hizkuntzalarien esperientzia entzuteko aukera izan dute.

Gaur amaitzen den edizio honetan berrikuntzak egon dira. Batetik erakusketa eta bestetik azoka izan dira. Erakusketan, hainbat udalei bere esperientziaren berri emateko aukera eman zaie. Azokan, enpresa, elkarte eta erakundeek haien zerbitzuak saltzeko aukera dute. •



Euskara zerbitzuen III. edizio hau antolatzen duten erakundeen ordezkariak eman zituzten hasiera topaketari.




Aurten, gainera, enpresa, elkarte eta erakunde desberdinek euskara sustatzekodituzten haien zerbitzuak eskaini zituzten azokan.



Urchueguiaren aurka EBk jarri zuen salaketa artxibatu du Fiskaltzak /3

KIROLA/ 6

Miriam Infante futbolaria Estatuko selekzioarekin dago Pragako mitornean



Familia bidezko euskararen transmisioa Buruntzaldeko herrietan /4-5

Eguneroko menua
Astebukaerako menua
Karta
Bokatak
Razioak
Plater konbinatuak
.....

txintxarro

erretegia

Berria!

Txikierdi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964

ALBA

ARROPA DENDA

DENDA DEKKIA

KOOKAI
NAFNAP
LEISE

Nagusia 65 behe • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Neure kabuz



Ramadana Garizuman

Agian, gure artean bertan, jende gehiago dugu gaur, Ramadana zer den dakiana Garizumaz dakiana baino. Ez, seguraski, oraindik ez da horrela izango, baina nahiko bide horretan ari garelako ezin uka.

Adineko gure jendeak, nola ez, ongi baino ongiago daki Garizumari buruz eta ondoren datorren Aste Santuari buruz, gero Pazkoa eta udako giroa. Baina adinekoak diot, zeren gazteen artean hau dena, pelikuletako fantasia bezala bait da. Jakin gutxi, egia esan eta bizi... zer esan? Oporrak bizi, hori bai, baina gehiagorik zaila, eta ez borondate txarra dutelako, ez.

Ez dago gaizki beste erlijio eta kulturetan dituzten jai eta ospakizunak ezagutzea, horren zabalasun eta aukera gehiago ematen digu, baina zure inguruan dituzanak ez jakitea, bai, hori gaizki dago. Eta arazoa ez da erlijiosoa bakarrik, baizik kulturala, hau da, gizarte batek dituen ohitura, historia eta memoriaren galtzea. Zer gertatzen zaigun? Etxekoa baino kanpokoa beti izan dela hobeagoa, agian? Etxekoak aspertu egiten gaituela? Bestalde, gaurko giroan, publikatzen ez dena, ba dirudi ez dela existitzen, eta garizumari buruz publikatu, nahiko gutxi edo ia ezer ere ez, Ramadana berari buruz baino gutxiago, gure telebista, irratia eta egunkarietan.

Ba bai, kristauok garizuman gaude, eta garai honek esan nahi duen gutzia bizitzen saiatzen gara. Otoitza, limosna eta barua erlijio guztietako moduak izanik, guk garai berezi honetan areagotzen ditugun ohiturak ere badira, horrela, Aste Santua oporrek baino gehiago eta oporren erdian ere, kristau zentzu sakonago batetik bizi dezagun. Inportanteena, mundu honetako sufrimendu eta dolu guztiekin bat eginik bizitzea dela gogoratzen zaigu, zeren hori baitu xede, bereziki, garai honek, biktimekin bat egitea eta azken hitza ez dela heriotza baizik bizi bete, aldarrikatzea.

Xabier Andonegi

Zorion-agurrak



Montse

Zorionak 'izeba!' Tarta zure kontu, baina ez ahaztu azukre piskat botatzea!



Iraia

Zorionak printsesa. Bi muxu handi zure familiaren partetik



Sara

Hiru muxu potolo etxeokoen partetik



Amairu

Zorionak sorgintxo! Txokolatezko 3 muxu aita eta amatxoren partetik! Ondo pasa!



Asier

Zorionak zure bederratzigarren urtebetetzean. Ander, aita eta amaren partetik.



Asier

Zorionak txapelidun! Iritsi da eguna, esku osoa bete duzu. Muxuak! Naroa eta gurasoak.



Leire

Zorionak maitia, zure hamaikagarren urtebetetzean. Muxu handi bat denon partetik.



Iraia

Zorionak printsesa!! Lau muxu goxo Leire, amatxo eta aitaoren partetik.



Hugo

Zorionak, aiton-amonen eta izeben partetik. Ondo pasa.



Ainara

Zorionak sorgiña! Ondo pasa eta muxu pottoloa etxeokoen partetik.



Laura

Zorionak! Hamabi muxu, Luzia, guraso eta aiton-amonen partetik

Ospitaleetara doan autobusaren ordutegia

Bidaieren iraupena: 15 minutu

Lanegunetan	Lasarte-Oriatik irteera (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Garaje plaza handi bat alokatzen dut Atsobakarren, 60 euro/hilabetean. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115 (Jose Manuel).

• 116m²-ko aparteko pisua salgai, kultur etxearen parean. Guztiz berrituta dago. 3 gela, 2 komun, jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiek kalera ematen dute, lřgo de Loyola kalera eta Geltoki kalera. Sartzeko prest: 639 738 413.

• Lokala salgai Lasarte-Orian, Green plazan. 48 m² ditu eta aukera du etxebizitza egiteko legedi barruan. Aire egokitu eta komuna ditu. Komertzio bezala ere aukera onak eskaintzen ditu. 110.000 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 605 770 786.

• Mobil home bat saltzen da, Oriten. Interesatuak telefono zenbaki honetara deitu: 626057485, Jone.

• Pixua errentan hartuko nuke.

Lasarte, Andoain edo Villabonan. Harremanetarako 667 808 934.

• Jakin apartamendua alokatzen da Aste Santuan. Harremanetarako zenbakia, 630 827 016.

• Hernaniko alde zaharrea etxe berria salgai. 270.000 euro. Harremanetarako zenbakia, 943 332 320 edo 685 369 952.

Lan-eskaintzak

• 4.D.B.H-ko ikasle bati klaseak emateko irakaslea behar da. Intereza daukanak 636 2186 77 telefono zenbakira deitu dezala.

Lan-eskariak

• Emakume euskalduna eskaintzen da gaixok edo adineko pertsonak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Ordutegi malgua, bai egunez edo gauzez. Prezio ekonomikoa. Harremanetan jartzeko, 687 348 223.

• Gizonezko batek lan egingo luke zamalanean, loretzaintzan, erakuntzetako zaintzaile e.a. Harremanetan jartzeko, 667 808 934.

Oharra jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kirolegia 943 376182
Kulturetxea 943 376181
Zerbitzu Sozialak ... 943 376179
KIUB 943 361605
Udal eskalgia ... 943 361621
Muntteri AEK
euskalgia 943 372863

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 8

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 9

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 10

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astelehena, 11

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astearte, 12

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteazkena, 13

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Osteguna, 14

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Ana Urchueguiaren aurkako EBren salaketa artxibatu dute

Alkate-ohiak Eusko Legebiltzarreko Europako eta Kanpo Harremanetarako Batzordean azalpenak eman zituen asteartean

Gipuzkoako Fiskaltzak EB alderdiko Rikardo Ortega zinegotziak Ana Urchuegia alkate-ohiaren aurka aurkeztutako salaketa artxibatu egin du.

Rikardo Ortegak martxoaren 22an jarri zuen salaketa hori *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak alkate-ohiak Somoton dituen ondasunei buruz argitaratutako informazioen harira.

Garrantzia gutxiko ekintzak

Fiskaltzak Urchuegia anderea itaundu egin zuen eta honek aurkeztutako dokumentuak, hala nola, lurren eskriturak edo *Kutxari* eskututako maileguaren paperak, aztertu zituen. Eta martxoaren 30ean argitaratutako dekretuan, denuntziatutako ekintzak garrantzia gutxikoak direla adierazten du.

Dokumentu honetan, "kode penaleko 439. artikuluan ikuskatzen eta zigortzen diren negoziaketa delitua eta funtzionario publikoek debekatutako dituzten ekintzen betebeharratikoen zantzurik ez dago" dio Fiskaltzak.

Izan ere, "orduaz Lasarte-Oriako alkate zenaren Somotora diru-laguntzen kudeaketak



Ana Urchuegia alkate karguari uko egin zion mintzaldiko momentu batean.

ondasun higiezin horiekin duen zer ikusiaren zantzurik ez dago," adierazten da.

Fiskaltzak ondasun publikoen bidegabeko erabileraren delituaren zantzurik ez dagoela ere azpimarratzen du.

Horregatik, denuntziatutako ekintzak hipotesi subjektibo soilzkat jotzen ditu Fiskaltzak eta kasua artxibatzen du.

Eusko Legebiltzarra

Bestalde, Ana Urchuegiak, *Noticias de Gipuzkoako* arduradun eta kazetariak eta Lasarte-Oriako diru laguntzen

ikerketak-batzordeko kideek asteartean Eusko Legebiltzarreko Europako Gaietako eta Kanpo Harremanetarako Batzordean hitz egin zuten.

Alderdi abertzaleek, Aralar, Mistoa-Eusko Alkartasuna eta Mistoa-Ezker Batua Berdeak taldeek egindako Eusko Jaurritzaren Txile eta Peruko egungo ordezkari eta Lasarte-Oriako aurreko alkateak egindako kudeaketa instituzionalaren inguruan argitaratu diren informazioei buruz azalpenak emateko eskaerari erantzunez egin zuten agerraldia. •

Atsokabarren konpostegia jartzearen aurkako erabakia hartu du Auzitegiak

Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Usurbilgo Udalak Atsokabar auzoan konpostetako planta egiteko hartutako akordioa bertan behera utzi du.

Administrazioarekiko Auzietako Salaren epaiak Lasarte-Oriako Udalak jarritako errekurtsioa aintzat hartzen du.

Lasarte-Oriako Udalak aurkeztutako idatziak jasotzen duen moduan, Usurbilgo Udalaren espediente urbanistikoa onarpenak Gipuzkoako zerbitzu urbanoen azpiegituren Arlokako Lurralde Planaren zehaztapenak urratzen zituen.

Era berean, Udalak bere helegitean azaltzen duenez, aipatutako espedienteak ez zuen nahitaezko konpostaren ingurumen-inpaktuari buruz-

ko ebaluaketa azterketa eta honek eragingo zituen gaitzen azterketa ere ez zen egin. Gainera, ez ziren planta kokatzeko alternatibak kontuan hartu.

Alkateak azaldu duenez,

"aurkeztutako helegitearen helburua da lasarteoriatarren interesak defendatzea, eta horrela lortu dugu, beraz, oso pozik gaude bere momentuan hartzea erabaki genuen neurriengatik". •



Ez da Atsokabarreko eremuan konpostarako plantarik ezarriko. Arg.: L-O Udala

AKATSAK ZUZENTZEN

Gazte-Klubeko Aste Santuko prezioa

Asteleheneko aldizkarian, 3. orrialdean Gazte-Klubeko kideentzat Larraulera Aste Santuko oporretan, apirilaren 18tik 20ra antolatutako irteeraren berri eman genuen. Honetan eskaini genituen prezioak okerrak ziren. Irteeraren prezioa 35 eurotakoak da bazkideentzat eta 38 eurotakoak, bazkide ez direnentzat. •



KREDITU-TXARTELA

Taxietan kreditu-txartelak onartuko dira

Apirilaren 1etik aurrera Lasarte-Oriako 8 taxietan kreditu txartelarekin ordaindu daitezke. *La Caixa* banku txetxearen elkarlanari esker taxisten zerbitzua ordaintzeko dirua beharrez txartela erabili ahal izango dute herritarrek.

Taxistek diotenez neurri hau bai bezeroarentzat eta baita haientzat ere aurreratze handia da. •

BEGIRALEAK

Udalekuearako begiraleak behar dira

Udako Txokoak egitasmoan edo udaleku itxietan, uztaila eta abuztuan, begirale izan nahi duten gazteek orain dute aukera izena emateko.

Honetarako zenbait bide dituzte interesatuek: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakuneko bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke. •

OINATZ

Lasarte-Oriako zuhaitzak ezagutzen

Oinatz taldeak Lasarte-Oriako dituen aberastasunak erakusten jarraitzeko asmotan, oraingo honetan herriak zuhaitzetan duen aberastasuna erakusteko txangoa prestatu du.

Lasarte-Oriako zuhaitzak izeneko ibilbide honetan, herriko zuhaitz motak eta familiak erakustez gain, zuhaitz eta zuhaixka tarteko desberdintasunak, hauek izan ditzaketen gaitzak, etab. izango dira mintzagai. Ibilbidean zehar ere zuhaitzen hostoak bilduko dira eta haien bidez zuhaitzak desberdintzen ikasiko dute parte hartzaileak.

Apirilaren 10ean, igande honetan goizeko 09:00etan, Jalgi taberna parean emango zaio hasiera txangoari. Goizeko irteera izango da, beraz eguerdi aldera etxera buelta egingo da. Irteera hau doan izango da eta ez da izenik eman behar. •



FLASH-MOB

Zubietako Flash Mob-a ikusgai interneten

Gipuzkoa Zero Zabor elkarteak Zubietan martxoaren 20an 2.000 pertsona baino gehiago dantzan jarri zituen Errausketaren moratoriaren aldeko Flash Mob-a grabatzeko.

Aste honetan, astelehenean, Flash Mob-aren bideoa bere web orrialdean ikusgai jarri zuen. Interesa duenak, www.gipuzkoazz.com/zerozabor orrialdean aurkituko du.

Honetaz gain, Zero Zabor politika eta elkartearen ekintzei buruzko informazioa ere ematen da aipatutako orrialdean. •



FAMILIA BIDEZKO HIZKUNTZA TRANSMISIOA - EUSKARAREN TRANSMISIOA

Etxeko joerak umeentzat eredu izaten dira, hau da, etxean jaso, ikusi, sentitu eta entzuten dutena barneratzen dute; hizkuntza bezala. Horren garrantziaren jakitun, Alex

Ramos eta Itsaso Irazusta lasartearek eta Amaia Arregi eta Jon Iraola hernaniarrek gaztelaraz hitz egiteko zuten ohitura aldatu, eta euskaraz bizitzea erabaki dute.

Alex Ramos eta Itsaso Irazusta

"Alabak lagundu dit nire hizkuntza berreskuratzen"

Alexek eta Itsasok bi alaba dituzte: Alazne, 7 urtekoa, eta Araitz, 3 urtekoa. Itsaso berez euskalduna da, guraso euskaldunak ditu, baina lagun erdaldunak egin zituen eskolan eta euskara erabiltzeko ohiturarik ez du izan urtetan. Alexek, berriz, Eskola Publikoan bakarrik jaso izan zuen euskara, astean bi orduz, frantsesa edo ingelesa bezala. Bikote arteko hizkuntza gaztelara izan da beti, baina egoera aldatu egin zen Alazne jaiozarenekin. Alex euskara ikasten hasi zen eta Itsaso, berreskuratzen.

"Ni Alaznegatik, alabagatik hasi nintzen. Orain dela 6-7 urte AEKn hasi nintzen eta pixkanaka-pixkanaka euskal giroan sartu naiz", dio Alexek. Itsasok, berriz, hala gogoratzen du: "Nik pentsatzen nuen: ni euskalduna naiz eta nik euskara nahi diot erakutsi nire alabari, baina galten ari naiz. Eta nire kasuan, nire bikoteak ere ikusten zuen gure hizkuntza dela eta bera euskaltegian sar-

"Etxean euskal giro hori ikusi behar dute umeek"

Seme-alabek euskaraz ikasteko eta hitz egiteko garrantzitsua dela uste dute gurasoek ere erabiltzea. "Etxean euskal giro hori ikusi behar dute. Zaharrena orain hasi da erdaraz gehiago hitz egiten eta euskaraz egiteko esaten diot. Orduan, berak guri erdaraz entzuten diguean segituan esaten digu. Eta arazoia dauka. Nik esaten badiot euskaraz egin behar duela guk ere egin behar dugu", azaldu du Itsasok.

Kalean edo helduekin aritzea haurrekin aritzea baino gehiago kostatzen zaiola ere aitortu du Alexek: "Haurrekin lotsa gutxiago ematen du hanka txisteak". Eta umeak berak euskaraz ikasten laguntzen duen galdetuta, beraien kasuan baietz dio Lasarteko bikoteak: "Alaznek bai, zuzen-



Alex Ramos eta Itsaso Irazusta lasarteoriarrak.

tzen nau: Aitatza hau ez da horrela esaten. Horrela eta horrela esaten da", azaldu du Alexek.

"Adinaren arabera da. Orain ulertzen du baita ere aita euskaraz ikasten ari dela eta lagundu egin behar diogula eta bera ere saiatzen da laguntzen. Eta nik uste dut hemendik aurrera gehiago lagunduko duela, bai berari eta baita niri ere", gaineratu du Itsasok.

"Euskaraz ikasteko, erabili egin behar da eguneroko bizimoduan"

Lasarte bezalako herri batean, giro euskalduna bilatzeko arazorik ez dagoela diote biek, norberak nahi izatea dela kontua. Hala azaldu du Alexek: "Zuk nahi baldin baduzu,

badago aukera. Eskolako ekin-tza ezberdinen bidez, Solaskideren bidez... Aukera ezberdinak dituzu euskaraz aritzeko. Ez bakarrik euskaltegiak. Izan ere, jende asko joaten da bi orduz egunero euskaltegiara eta gero handik aurrera akabo euskara. Eta niretzat horrek ez du balio ikasi eko. Euskara erabili egin behar da eguneroko bizimoduan".

"Eta norberak ere bilatu egin behar du jende euskalduna. Norbera mugitu behar da", dio Itsasok.

Euskaraz ikasi eta ohitura aldatzea erraza ez den arren, beraien kasuan egon daitezkeen gurasoak euskararen aldeko pausua ematera animatzen dituzte, ahaztu gabe norberaren inplikazioa dela gakoa. •

DATUAK

Azken urteotan, gero eta gehiago dira etxean haurrei euskara irakasten dieten familiak. Baina, Eusko Jaurlaritzak egin berri duen inkestan jasotzen denez, EAEko biztanleen erabilera, jarrera eta politikak aztertzen ditu inkesta honek, elebidunak diren biztanleen artean %17 dira euskaraz errazago hitz egiten dutenak, eta %61 dira gaztelaniaz erosoago aritzen direnak. Beren artean nagusiki euskaraz ari diren gurasoak ere %16 dira. Etxeko hizkuntzak (helduen artekoak) erabakitzen du, neurri handi batean seme-alaben errotasuna eta, ondorioz, erabilera.

JOSEBA SARRIONDIA Idazlea

"Euskaraz ez du oraindik bizileku habitable bat, dena egiteko dugu. Euskararen paradoxarik larriena da, euskara euskaldun guztien patrimonioa dela, baina, aldi berean, gutxi batzuen hizkuntza. Ahalegindu behar dugu euskaraz izan dezan lekua, izan dadin zernahitarako erabilgarria".

IÑAKI LARRAMGA Soziologoa

"Kezka garria da, jatorriz euskaldun izan eta euskaraz egiteko gaitasuna duen hainbat jendeke erdaraz aritzeko duen joera tamalgarrira. Hor nire ustez gaitz gaizto bat dugu. Oraingo egoera beste diglosia mota bat da. Nik neure familian bizi dut egoera hori. Gure ondorengo belaunaldikoek, nahiz senar emazte edo guraso gazte, nahiz ezkongabeak, guztiak euskaldunak izan arren barrabarra erdaraz hitz egiten dute. Gurekin eta haurrekin hitz egiteko erabiltzen dute euskara. Eta gehienak ikastolatik pasatakoak dira... Zer gertatzen da hor?".

karaz egitea bakarrik. Gainera, koekin ere euskaraz hitz egitea da kontua, umeek hori sumatu eginen baitute: Nire gurasoek beraien lagunekin erdaraz egiten dute. Nire amak bere amarekin erdaraz... eta gero guri etxean euskaraz hitz egiteko esaten digu. Koherentzi pixka bat behar da. Egia da gaztelaraz egiteko ohiturak oraindik hor jarraitzen duela eta zaila dela ohitura horiek aldatzea, baina euskara erabiltzeak duen garrantzia jabetu, kontzientzia hori hartu eta esfortzuz txiki bat egitea besterik ez da".

Dena dela, oso baikorrak direla azpimarratu dute: "Urte batzuetatik hona ikusi dugu Hernanin euskaraz gehiago entzuten dela eta maila igo egin dela. Orain dela 20 bat urte ez zen euskaraz hainbeste hitz egiten kalean, koadrilen artean, lagunen artean... Eta guk momentu honetan ez dugu ezagutzen inor, euskaraz dakienik eta bere seme-alabari transmititzen ez dionik". •

«Lehen erdaraz aritzeko ohitura gehiago genuen. Etapa bat izan da umeak eduki aurrekoa»

Amaia Arregi eta Jon Iraola

"Seme-alabei euskara eman nahi genien, guk jaso genuen bezala"

Amaiak eta Jonek 12 urteko alaba, Arrate, eta 9 urteko semea, Jokin, dituzte. Amaia eta Jon familia euskaldunekoak dira eta beti hitz egin izan dute euskaraz etxean. Gaztetan, ordea, Institutu garairiko urtetan, hain zuzen, gaztelaraz aritzen ziren etxetik kanpo, koadrilan, lagun artean eta baita beraien bien artean ere. "Inkoszienteki" egindako zerbaite izan zela diote, "makarra garai bat". "Ohitura zegoen kalean gaztelaraz egiteko nahiz eta gehienok euskaraz jakin. Hernanin oso giro erdalduna izan da urte askotan". Ohitura aldatu egin zuten, batez ere, seme-alabak izandakoan.

"Elkarrekin bizitzen jarri ginean, ez dakit, agian norberaren etxea delako edo, euskara zaintzen hasi ginen. Eta seme-alabekin oraindik gehiago. Argi genuen seme-alabei euskara transmititu nahi genitela, gure hizkuntza, guk jaso genuen bezala".

"Euskaraz erabiltzeak duen garrantzia jabetu eta esfortzuz txiki bat egitea besterik ez da"

Horrez gain, beraien inguruko jendearen artean aldatzea izan dela diote: "Lehen gehiago genuen erdaraz aritzeko ohitura. Harremanak ere zabaldu eginen dira umeen inguruan eta sortzen

ZER ENTZUN, HURA ESAN



Hizkuntza-ohiturak etxean hasten dira

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Euskarako Batzordeak



Carcoaldeak emititutako iragarria



Miriam Infante futbolariak Estatu selekzioarekin minitorneoa jokatu du Pragan.

Miriam Infante Txekiar Errepublikan dago

Ostadar futbol taldeko Miriam Infante, berriro ere, Estatu 17 urte azpiko selekzioarako hautatua izan da. Oraingoan, Pragan dago bertan, apirilaren 14ra arte jokatu den minitorneoa parte hartuz.

Europako txapelketa

Estatuko beste hamazazpi neskekin batera astelehenetik

asteazkena Madrilen, Las Rozasen egon da entrenatzen eta minitorneoa prestatzen.

Torneo honetan Belgika, Italia eta Txekiar Errepublikaren aurkako partidak izango dituzte eta garaipena eskuratu behar dute Suitzaren uztailan jokatu den Europako txapelketa egon nahi baldin badute.

Bihar, lehenengo partida dute Belgikaren aurka. •

Garazi Gomez gimnasta Gipuzkoako txapelketan

LOKEko gimnastikako neskekin Eskolarteko eta Amateur Txapelketako bigarren jardunaldia izan zuten Bergaran, lehengo larunbatean.

Gimnasta gazteek lan ona egin zuten. Herriko taldeak hiru gimnasta eta kadete mailako taldea aurkeztu zituen lehiketara eta, horietako batek, Garazi Gomezek amateur txapelketako finalerako txartela eskuratu zuen.

Jardunaldia

Goizean, Aizpea Arroyok uztaiarekin eta borrekin lan egin zuen kadete mailako bakarkako lehiaketan eta 6. postua eskuratu zuen.

Arratsaldean, beriz, kadete taldeak 5 uztaiarekin eskainitako lana aurkeztu zuen eta 7. geratu zen.

Azkenik, jubenil mailako Garazi Gomez eta Miren Aizpiriren txanda izan zen. Hauek xingolarekin lan egin zuten eta ederki gainera. Izan ere, Garazik bigarren postua



Garazi Gomez iazko borra laneko hasiera posizioan. Arg.: LOKE gimnastika saila

eskuratu zuen eta Mirenek zortzigarrena.

Era honetara, Garazik maiztean jokatu den finalerako txartela eskuratu du.

Erakustaldia

Bestalde, apirilaren 16an,

larunbata 11:00etan, LOKE eta Andoaingo Kirol elkarteko gimnastek erakustaldia egingo dute kiroldegian.

Honetan, maila desberdinetako gimnastek urtean zehar ikasitakoa erakutsi ahal dute. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 09

09:45ean, Ostadar - Aforga (Infantil Txikiak, kopa) Michelinen.
11:15ean, Ostadar - SANSE (I. kadetea, kopa) Michelinen.
11:15ean, Ostadar - Antigua Luberrri (Partehartze infantilak, kopa) Michelinen.
12:45ean, Ostadar - Amaik Bat (Emakumezkoen KDT F-I I, txapeldu-nen fasea) Michelinen.
15:30ean, Behobia - Ostadar (Erregional Gorena) GAL, Irunen.
15:45ean, Ostadar - Usurbil (I. Jubenila, kopa) Michelinen.
17:30ean, Ostadar - Beasain (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.
17:45ean, Beti Ona - Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Beraun, Errenteria.

Igandea 10

09:45ean, Ostadar - Lagun Onak (Kadeteen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.
11:15ean, Ostadar - Lagun Onak (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.
13:00etan, Ostadar - Anaitasuna (I. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.
16:00etan, Eibar - Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, txapeldu-nen fasea) Unbe, Eibarren.

PILOTA

Ostirala 08

18:30ean, Intza - Urnieta (Udaberri txapelketa, eskuz banaka, II.Kadetea) Ibaeta, Donostian.

19:00etan, Intxurre - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz banaka, I.Kadetea) Alegian.

19:00etan, Urnieta - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz banaka, I.Kadetea) Urnietan.

Larunbata 09

11:00etan, Alde Zaharra - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz banaka, II.Kadetea) Atano IIIa pilotalekuan, Donostian.

PALA

Igandea 10

09:15ean, I. Bardaji eta A. Zubizarreta - I. Lizaso eta Joserra Alzibar
10:00etan, J. Iparragirre eta K. Rozas - P. Sarasola eta J. L. Urruzola
10:45ean, J. Begiristain eta X. Etxezarreta - B. Odriozola eta S. Martin

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 08

HERRIKO TXAPELKETA
Finalerako Fasea, kiroldegian
20:00etan, Semblante Andaluz - Izarra
21:00etan, Ainhoa - ISU Leihok

Larunbata 09

16:45ean, Zurt Taberna - ISU Leihok (Gipuzkoako Liga, I. maila) Zubiaurre kiroldegia, Azkoitian.

HERRIKO TXAPELKETA

Ligaxka eta kontsolazioa, Michelingo kirol gunean
15:00etan, Ori kris. - Morrison's

16:00etan, Viña del Mar - IOB H.K.
17:00etan, Obelix - Illun

Igandea 10

12:00etan, Ceramics Nogales Zarautz - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Aritzba-talde Udal kiroldegian, Zarautzen.

SQUASH

HERRIKO TXAPELKETA

18:00etatik aurrera
Ostirala 08
Xabier Amiano - Iker Cañedo
Ivan Sancho - Irati Agirre

Astelehena 11

Michel Zugasti - Xabier Amiano
Joaquin Peña - Ivan Sancho

Asteartea 12

Oinatz Iparragirre - Iñaki Garcia
Patxi Delgado - Veronica Gonzalez

Asteazkena 13

Emilio Hernandez - Agustín Erkizia
Quinin Calvo - Alberto Udabe

Osteguna 14

Fernando Montero - Jon Linazisoro
Raul Mateos - Oswal Cañedo

ATLETISMOA

Igandea 10

09:00etan, herritar multzo batek ARCCO hiri kroसान parte hartuko du Donostian.
09:00etan, herritar multzo batek

Donostia-Hondarribia Talaia bidea proban parte hartuko du.

IGERIKETA

Larunbata 09

16:00etan, Buruntzaldea IKT-ko alebin eta benjaminen Kirol Zehaztasun Ligako 5. jardunaldia izango dute, Tolosan.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 09

10:30ean, Buruntzaldea txirrindularitza eskolako infantilek Txirriandularitza Sarian partear hartuko dute.

Igandea 10

08:30ean, Ostadarreko zikloturistak irteera dute Guadalupe eta Jaizkibel, Hondarribira.
09:30ean, Buruntzaldea txirrindularitza eskolako jubenilek XLVIII Zummy Trofeo - 17. Juanjo Zabala oroimenezkoan parte hartuko dute, Donostian.
16:00etan, Buruntzaldea txirrindularitza eskolako kadeteek XXXIX Amelio Mindijuri oroimenezkoan parte hartuko dute, Urretxun.

BTTI

Igandea 10

09:00etan, Lasarte-Oriako 3. BTT traba-sia egingo da Andatza eta buruntz mendietan barrena, irteera kiroldegi ondoan.

DUATLOIA

Igandea 10

11:00etan, hainbat herritarrek Gipuzkoako duatloi motzeko txapelketa den Azkoitia Duatloian parte hartuko dute.

JUDO

Igandea 10

Goiza osoa, LOKEko judoket 23 urte azpiko Euskadiko txapelketan parte hartuko dute, Errenterian.

ERRUGBIA

Igandea 10

Goiza osoa, Lasarte-Oriako Beltzak-Ostadar Jalai errugby eskolako benjamin mailako neska mutilek topaketa dute Landaren, Hernanin.
Goiza osoa, Lasarte-Oriako Beltzak-Ostadar Jalai errugby eskolako alebin mailako neska mutilek topaketa dute Azti, Zarautzen.
Goiza osoa, Lasarte-Oriako Beltzak-Ostadar Jalai errugby eskolako infantil mailako neska mutilek topaketa dute Aieten, Donostian.

BOLA-JOKOA

Igandea 10

Egun osoa, Ostadarreko bola joko taldeak Gipuzkoako kopako jardunaldia du Altzan.

Egunero

Erakusketa

SHANDRA PEREZ LUCEROREN margolanak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar

Larunbata, 9

Antzerkia

BAGINAREN BAKARRIZKETAK antzezlan eskainiko da Txalo produkzioen Korrikaren aldeko egitarauaren barruan. Sarrera doan, Kutxaren babesarekin. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan, EUSKARAZ

Kontzertua

ANDRAKAN ETA OREINDIK taldeen emanaldia. Jalgi kafe-antzokian, 22:00etan

Igande, 10

Zinea

LOS VIAJES DE GULLIVER filma ikusgai izango da, haurrentzako zinema atalean. Sarrera, 3,30euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ



17. Korrika badator!

17. Korrikaren aurkezpena egingo du Munterri-AEK eskalategiak. Herriko talde ugari hartuko dute parte bertan. Gainera, Korrikako aurtengo arropa erakusteko desfilea egingo da eta Korrika 16ko bideo proiektzioa ere egingo da. Azkenik, petoen banaketa egingo da.

GAUR, OSTIRALA 8
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN
20:00ETAN, EUSKARAZ

Asteartea, 12

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien

zikloan, "JOSTATUZ IKASTEA", Fermin Korkostegi psikomotrizistaren eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan

Osteguna, 14

Zinea

WHEN YOU'RE STRANGE filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean. JATORRIZKO BERTSIOA, GAZTELANIAZ SUBTITULATUA



Ostirala, 15

Bakarrizketa

Xpression eta Udalak hitzartuta dituzten Gazte kontzertuen barruan, Ruben Arrospidek bakarrizketak eskainiko ditu. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan, GAZTELANIAZ

Antzerkia

Telebistako VAYA SEMANITA programako sketchak antzerkian ikusi ahalko dira. Sarrera, 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:30ean, GAZTELANIAZ

Bertso-saioa

Irun eta Lasarte-Oriako bertso-eskolen arteko bertso-desafioa Korrikaren aldeko egitarauaren barruan. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean. EUSKARAZ

Oharrak

17. Korrikako arropa salgai

Korrika 17aren arropa, kamisetak, sudaderak eta abar erosi nahi duten herritarrek badute lekua.

Materiala Urruzola merterian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldoiaren amaiera arte, hau da, apirilaren 18a arte.

Hautesle-zerrendak begiratzeko aukera

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazten du, apirilaren 4a eta 11ren artean, biak barne, udaletxean kontsultatu ahal izango direla herriko hautesle-zerrendak.

Horiek izango dira datoren maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundearako erabiliko direnak. Interesatuak udaletxean dagoen informazio bulegora joan beharko du 9:00etatik 13:30era.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketa-rekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, erazten bat, diru zorro bat, neskaren eskumuturreko bat, bi zilareko graduatu bata zorroarekin, poltsa eta telefono mugikor bat, haur zamarra bat, bi larruzko zamarra eta belarritako batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden persona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Lourdesera bidaiak maiatzaren 8an

Maria Auxiliadora elkarteak, ohitura denez, Lourdesera txangoa antolatuko du. Bidaiak maiatzaren 8an izango dira. Informazio gehiagorako deitu 943 363 675 edo 943 360 042 telefono zenbakietara.

Maria Auxiliadorearen omeneko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadorearen meza ospatuko da apirilaren 14an, ostegunean, arratsaldeko 17:00etan.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia

Astelehenerdik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Eskutitza

Zer moduz guraso hori?

Ni hiru semeen ama naiz, gurasoa alegia, eta beste gurasoei laguntza eskatzen dizuet galdera bati erantzuna emateko.

Denok dakigu ez dela bide erraza gure seme-alaben heziketa. Beraien etorkizuna gure eguneroko borroka da eta horrexegatik asko arduratzen digu eguneroko zereginak. Esate baterako: eskolako lanak, bertako eta etxeko jarrera, aisialdia... Hamaika amorrazio, neke eta kezka izaten ditugu baina baita ere emaitza onak jasotzen ditugu. Beraz, borroka honek merezi duela ados gaude, ezta?

Badaude beste zeregin batzuek non ez da inoiz borroka bat izan. Gure hau-

rrak gaur egunekoak esan nahi dut, jaio orduko zaborraren arazoa ez dute arazo ikusten. Badakite zein eduki ontzitan bota zabor bakoitza eta gure herrian Atez ateko sistema martxan jarri denetik zeresanik ez. Berdin du zein lagunen etxera joaten diren, denek berdin bereizten bai dute.

Aiton amonen etxean ere berdin. Gustua ematen dit nire semeek zein erraz egiten duten zeregin hau ikusteak.

Badakite etxeko erosketak egiterakoak etxetik poltsa eramanaz gero zabor gutxiago sortzen dutela.

Badakite ere ogia erostekoan bere zorroa eraman behar dutela eta ikusten didate arraina edo okela erostera joaten naizenean

fianbrera bat eramaten dudala eta arrain usainik ez dela geratzen etxeko zaborratan.

Gure etxean zaborra geroz eta gutxiago osatzen zaigu. Hori da ere gure helburua.

Baina erraustegi bat jartzen bada erregaia beharko du funtzionatzeko, hau da, zaborra, bestela ez dauka izateko arrazoirik.

Orduan zer esan behar diet nire semei, ez bereizteko zaborra horren txukun? Ez kezkatzeko erosketak egiterakoan zenbat plastikozko poltsa behar ditugun? Zaborra sortu behar dela?

Ez al da hobe zaborra murriztea eta osasuna zaintzea?

Ixabel Agirresarobe.
Usurbilgo ama bat.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Buruntz-Azpi elkartearen mende erdia

Hainbat ekintza antolatu nahi ditu Basaundi bailarako elkarteak 50. urteurrena ospatzeko

Duela 50 urte, 1961eko irailaren 1ean, hain zuzen ere, Basaundi bailaran ehiza eta arrantza elkarteak sortu zen, Buruntz-Azpi.

Ordudanik, ehiza eta arrantzarekin zerikusia duten ekintzak egiteaz gain, jaiekin harremana duten hainbat ekimenetan ere parte hartu dute, hala nola, herriko danborradan. Basaundi auzoko jaiak San Ignazioak berpizten saiatu ziren eta Garagardo festa, Calçot jana edo Barrikoteak ere antolatu ditu.

Ospakizunak

Hain urteurren borobila ospatzeko hainbat ekintza antolatu nahi ditu Buruntz-Azpi elkarteak zuzendaritzak iraila bitartean.

Gauzak honela, zuzendaritzak jakin arazi duenez, elkarteak San Pedroetan Danborrada Buruntz-Azpi elkartetik ateratzeko eskaera egin dio danborradako batzordeari.

Honetaz gain, Mus eta Tute txapelketarekin hasiko dira uda aurretik.

Eta aipatu dutenez, zerbait bereziki antolatuko dute ehiza eta arrantza sailekin udariari begira.



Buruntz-Azpi elkarteak hainbat txapelketa eta erakustaldi antolatu ditu 50 urte hauetan. Argazkian, 2005eko haurren arrantza txapelketa.

ARG.: BURUNTZ-AZPI

Jai handia

Hala ere, haiek aipatu duten bezala, irailaren izango da jai handia. Izan ere, arestian aipatu bezala, irailaren 1ean eratu baitzen Basaundi auzoko elkarteak.

Hilabete honetako lehenengo edo bigarren larunbatean izango da hori.

Honela, goizean zehar hainbat ekimen eramango ditu elkarteak aurrera, toka eta bote txapelketa eta hilda-

ko bazkideen omenezko meza Karmengo Amaren kaperan

Jai giroa auzoan zehar zabaltzeko, trikitilariak ibiliko dira goizean zehar auzoko kaleetatik barrena.

Gainera, elkarteak urteurrena ospatzera hurbiltzen direnei txorizoa eta haragi egosia banatuko zaie doan.

Bazkari herrikoia ere antolatuko dute egun horretan. Eta adierazi dugutenez, bazkide

eta gonbidatuentzat doan izango da.

Arratsaldean, berriz, Mus eta Tute txapelketako final handiak jokatu dira elkartearen eta osteen, sari banaketa egingo da.

Eta honetaz gain, Basaundi auzoko plazan kontzertua egingo da.

Argazkien liburua

Ospakizun hauetaz gain, zuzendaritzako kideek azaldu

digutenez, bazkideei eskatuz elkarteak ekintza desberdinen argazki zaharrak biltzen ari dira. Horiek guztiak bilduta koan liburu bat argitaratu nahi dute.

Jakitera eman dutenez, liburua urria edo azaro aldera argitaratuko litzateke. Izan ere, azkeneko argazkiak 50. urteurrenako ospakizunetakoak izatea nahi dute eta, beraz, irailko jai egun handira arte itxaron behar dute. •

Salesianos Urnieta Salesiarrak

BATXILERGOA - BACHILLERATO FORMACIÓN PROFESIONAL LANBIDE HEZIKETA



ikastetxea ikusteko aukera
puertas abiertas

apirilak 9, 10:00-13:00
9 de Abril, 10:00-13:00



Diseinu grafikoa, Inprimaketa, Mekanika, Elektrizitatea, Elektronika
Diseño Gráfico, Impresión, Mecánica, Electricidad, Electrónica

www.salesianosurnieta.com

giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...

zatoz ven